

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak. 2023ko maiatza

Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiek, 2023ko maiatzean, % 12,3 egin dute gora

Atzerritarren sarreraren kopuruak % 25,0 egin du gora, eta Estatuko jatorriena baino handiagoa izan da, guztizkoaren % 53,4

2023ko maiatzean, Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerek % 10,0 egin dute gora, eta gaualdiek, % 12,3, urte arteko terminoetan, Eustaten datuen arabera. Izan diren 332.134 sarreraren ondorioz, 631.965 gaualdi izan dira, guztira.

Sarreraren % 53,4 eta gaualdien % 54,6 atzerritarrenak izan dira; sarreretan, % 25,0eko hazkuntza izan da eta, gaualdietan, % 25,3koa. Hala, Estatuko jatorrikoenak gainditu dira.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako sarrerak, gaualdiak eta batez besteko egonaldia. Maiatza 2023

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia	
	2023/05	m/m-12 (%)	2023/05	m/m-12 (%)	2023/05	2022/05
EUSKAL AE	332.134	10,0	631.965	12,3	1,90	1,86
Estatukoak	154.652	-3,4	286.811	-0,1	1,85	1,79
Atzerritarrak	177.482	25,0	345.154	25,3	1,94	1,94
Araba/Álava	42.030	9,9	79.195	13,4	1,88	1,83
Estatukoak	27.074	5,6	52.306	11,5	1,93	1,83
Atzerritarrak	14.956	18,5	26.889	17,3	1,80	1,82
Vitoria-Gasteiz	31.254	16,0	61.863	18,1	1,98	1,94
Bizkaia	150.229	8,9	282.841	10,3	1,88	1,86
Estatukoak	71.177	-5,5	126.886	-5,7	1,78	1,79
Atzerritarrak	79.052	26,4	155.955	27,9	1,97	1,95
Bilbao	101.633	9,3	196.537	10,0	1,93	1,92
Gipuzkoa	139.875	11,2	269.929	14,2	1,93	1,88
Estatukoak	56.401	-4,5	107.619	1,8	1,91	1,79
Atzerritarrak	83.474	25,0	162.310	24,2	1,94	1,96
Donostia / San Sebastian	89.947	13,6	180.206	14,5	2,00	1,99

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Ekainaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Araban, 42.030 sarrera izan dira eta 79.195 gaualdi, aurreko urteko maiatzean baino % 9,9 eta % 13,4 gehiago. Bizkaian, hazkuntza % 8,9koa izan da sarreretan eta % 10,3koa, gaualdietan; guztira, 150.229 sarrera eta 282.841 gaualdi izan dira. Gipuzkoan, 2023ko maiatzean, 139.875 sarrera izan dira, 2022ko maiatzean baino % 11,2 gehiago, eta 269.929 gaualdi, aurreko urteko hilabete berean baino % 14,2 gehiago.

Hiriburuka, sarrera kopuruak % 16,0 egin du gora Gasteizen, % 9,3 Bilbon eta % 13,6 Donostian. Antzera, gaualdien igoera, aurreko urteko maiatzarekin alderatuta, % 18,1ekoa izan da Gasteizen, % 10ekoa Bilbon eta % 14,5ekoa Donostian.

2023ko maiatzeko batez besteko egonaldia 1,90 egunekoa izan da Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 2022ko hil berekoa baino handiagoa, 1,86 egunekoa izan baitzen.

Batez besteko egonaldia bidaiariak gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopuruari dagokio, eta ez Euskal AEn egiten duten egonaldi osoari.

Euskal AEko hotel-establezimenduetako betetze-mailak eta errentagarritasuna. Maiatza 2023

	Betetze-mailak (%)				Errentagarritasuna			
	plazen arabera		gelaka		ADR (eurotan)		RevPAR (eurotan)	
	2023/05	p.p. *	2023/05	p.p. *	2023/05	m/m-12 (%)	2023/05	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	58,6	4,2	71,5	5,5	110,75	13,6	79,15	23,2
Araba/Álava	50,9	2,1	65,7	3,1	88,11	1,2	57,87	6,2
Vitoria-Gasteiz	51,7	2,9	69,3	3,6	70,53	2,6	48,86	8,2
Bizkaia	56,8	3,6	71,4	6,1	107,62	13,0	76,82	23,5
Bilbao	63,3	4,2	78,6	6,4	122,25	13,1	96,08	23,1
Gipuzkoa	63,7	5,8	73,6	5,8	121,40	17,6	89,31	27,7
Donostia / San Sebastian	71,7	5,5	80,6	5,7	148,68	17,7	119,82	26,7

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2023ko Ekainaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

2023ko maiatzeko okupazio-maila, Euskal AEn, oro har, plazen arabera neurtuz gero, % 58,6koa izan da, eta % 71,5ekoa, gelen arabera neurtuz gero. 2022ko maiatzarekin alderatuta, ehuneko 4,2 eta 5,5 puntu areagotu dira, hurrenez hurren.

Errentagarritasuna, ADR edo eguneko batez besteko tarifaren bidez neurtua (komuna duen logela bikoitzari aplikatua, soilik ostatu-erregimenean), Euskal AEn, 110,75 eurokoa izan da 2023ko maiatzean; alegia, % 13,6 areagotu da, aurreko urteko maiatzaren aldean. ADRa Gipuzkoan 121,40 eurokoa izan da, Bizkaian 107,62 eurokoa eta Araban 88,11 eurokoa. Hiriburuka, aldeak handiagoak izan dira; izan ere, ADRa 148,68 eurokoa izan da Donostian, 122,25 eurokoa Bilbon eta, azkenik, 70,53 eurokoa Gasteizen.

RevPar edo hileko gela eskuragarriko diru-sarrerak, Euskal AEko hotel-establezimenduetan, 79,15 eurokoak izan dira 2023ko maiatzean, aurreko urteko hil berean baino % 23,2 handiago.

Informazio-oharra

Hotelen ETHren estaldura % **93,2**koa izan da 2023ko maiatzean. Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Euskal AEko turismoko datuen esploratzailea. Hotel-establezimenduak

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62